

Eusebio Iraizoz Villanueva
Odieta, Nafarroa (1913)

Aurkibidea

Biografia

Odietako Gaskue herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Ultzamako Alkotz herrikoa.

Zintak

ODI-005

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1988-01-01
- **Iraupena:** 4 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Mus izeneko karta-jokoa

- **Erref:** ODI-005/001
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Mus karta-jokoaren inguruko azalpenak; erabiltzen den lexikoa.</p>

Transkripzioa

- Ta aber, nik erranen dut erdaraz eta zuk... Lehenbizi, nahasi, ezta?
- Kartak?
- Bai.
- "Man txak"... Kartak nasitx-, nasitteue. Oai... kortatzeko, "Moztu zok; moztu... moztu". Oai noi?... "Ik! -ya hablabas- ik; ni mus; i?" - "Ere bai". - "Venga, cartas: zenbat bear ttuk?" - "Lau, bostz"..(zuzenduz:) "Lau, iru".
- Eta gero?
- Amarreko, tantoak?
- Bai, lenhenbizi handira, ezta?
- Aundire... "Enbido! enbido aundire". Txikire?...
- 'Enbido', eta zer erraten da?
- "Ezte(t) nai". "Nai dek?". "Bai, iruki".
- Iruki? iruki da 'quiero'?
- Es... iduki 'quiero'.
- Ez da erraten 'nahi dut'...
- "Nai duk edo ez?", ta "Bai-bai, nai ziet".
- Iduki?
- "Iduki, iduki"... y nik "Enbido"...
- Eta erran daiteke 'bi gehiago', ezta?
- "Bi geio, lau geyao, bos(t) geyao, edo amar; ordago!"... e? te oai?
- piezeak: lau, amarreköa...
- Eta 'bost gehiago' (jo) eta baiezkoan, zer erraten da: 'nahi dut' edo 'iduki'? iduki da 'quiero'...
- Bue-, iruki? nik e... oai zuk erraten zu, botzen didez 'enbido', e?... nik errateinzut, ñaot ta... nik errateut: "Iruki!". "Enbido!"... 'quiero' erran biarrean, 'iruki'.
- Iduki...
- Iduki; oai zuk errat-, ezpalin baduk yik yaus saten, "Nai duk? enbido, nai duk?"... "Bai! e... nik, irukirik, iruki, bai".
- Edo bertzenaz 'eztut nahi'.
- "Eztu(t) nai".
- Eta nik 'enbido' eta zuk erraten baduzu 'bost gehiago', orduan nik berriz 'eztut nahi' edo 'iduki'?
- "Eztu(t) nai" edo "Iruki", edo "Ordago", bai.
- Bai, baina 'nahi dut' ez da erraten; 'iduki'; nahi baldin badut, orduan 'iduki' erraten da...
- Iruki, iruki, iduki...
- Eta gero txikira...
- Gero txikire...
- Gauza bera...
- Igual, igual.
- Eta gero, pareak...

- Parietara.
- Eta orduan, nola?
- Dubliak? zera... igual.
- 'Dobleak' erraten da?
- Dubliak.
- Eta 'medias eta duples' nola erraten da?
- Guk beti dubliak eta... mediek; mediek? "Dubliak ttiet". Dubliak?... edo mediek.
- Eta gero, hogeita hamaika (jokoa, alegia)...
- Oitameka... oitameka, oitamabi, oitamiru, oitamar... puntu? puntue.
- Puntua, ezta?
- Puntue, puntue? oitamarra bittarteo. Yokue? oitameka, oitamabi; yokue?...
- Eta 'paso' errateko?
- "Paso".
- Eta hurrengoak: 'enbido!'
- "Enbido"...
- Eta 'bi gehiago', 'iduki', edo 'eztiat nahi'...
- "Eztiet nai".
- Eta hiketan, normalean, e?
- Bai y... xegon, xegun beti... "Eztu(t) nai". Ah! gizonak... balimezien? ya... ordua(n), "Eztu(t) nai!"... Ahora, nik, gu biek bagiñe? zuk "Enbido?" - "Ezte(t) nai, ezte(t) nai".
- Eta nola erraten da 'soy de mano'?
- "I, esku naiz", (zuzenduz:) "Ni naiz esku", "I bigarren esku, irugarna"...
- Eta galdetzeko 'quién es de mano'?
- "Nor dok esku? nor duk esku"?
- Yo soy de mano...
- "Ni nauk esku, ni"...
- 'Joxe, Joxe es de mano'...
- "Jose de, o... Josek? da... Jose da...
- Esku?
- ... esku; Josek man bear ttik. Nok man ttu kartak, e? nik; pues orai ik eman bear ttuk, t'esku, ni nauken esku".

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com